

Odak, aipuak eta urretxindorraren izpiritua

Nola geroratzen da hila dena? Zure lana ezagutu nuen garai bertsuan ari ginen literatura erromantikoarekin, eta antzeko galderak ekartzen zizkiguten bi mende atzeragoko poemek. Gogoratzen dut liluratuta utzi nindutela John Keatsen bi odek, urretxindorrari eta greziar urnari eskainitakoek. Denboraz eta bizitzaz gaindiko transzendentzia hauskor bat irudikatzen zidaten biek, erromantiko onen eran, sotiltasun ederrezz puztua. Heriotzari irabazi ezina, bizitzaren ederrak kantatu nahia eta, azkenean, «oi, zein dan ituna, bera-bear au!»: patuaren aurrean etsia. Gogoratzen dut hasiera-hasieratik piztu egiten zidatela barrena lantu horiek, baina horien azpian gordetzen den kultur jakintzaz zure lanekin ohartu nintzela uste dut. Gauzak (poemak, eraikinak, gatazka armatuak...) ulertzekotan, horien testuinguru kultural-historiko-politikoa (*izpiritua*) arakatu behar dela izango da, seguru asko, hartu dizudan irakaspenik onena. Eta hori egiteko zure modua, interesgarriena.

Jende askok pentsatzen duenaren kontra, gainera, zure lanetan, euskara eta euskaldunon kontuak bigarren pausoan etortzen direla begitantzen zait, baita berariaz gai horiek jorratzen dituzunean ere; edo, bestela esan, irakaspenak zabalagoak direla beti hartzen duzun abiapuntuko gaia baino. (Normalean, euskal gaietara erreduzitu nahi zaituztenak eurak dira, 'euskal' zerak alde batetik eta zera 'unibertsalak' bestetik bereizi zaleenak; eta gutxiena irakurri ere eurek egin zaituzte. Baina zer esango dizut zuri...). Zure lana serio irakurtzera jartzen denari humanismoaren ideologiak irakasten dizkiozu, gero apologistak eta euskal idazleak azaltzeko. Ilustrazioa, erromantizismoa, klasizismoa kokatzen dizkiozu, gerraurreko asmo kulturalen zentzuaz aritzeko. Eta, bitartean, plano berean nahasten dizkiguzu Etxepare eta Jan Hus, Humboldt eta Txillardegia, Goethe eta Orixe, Rikardo Arregi eta Fanon. Ulertzera iritsi naizenez, horrela eraikitzen zenituen zure unibertsaltasun erlatiboak.

Jakina da irakaspen horiek ez direla zure eskusiboak, badaudela beste hamaika pentsalari antzeko gauzak esan dituztenak. Zu ere besteen izenak eman zaleagoa izan zara ideiak aurkezterakoan, zeurea aurre-ratu baino. Denbora eman nuen ulertu nahian zergatik molestatzan zidan, zure-zurea zen auziren bat (nazioarena, adibidez) euskaraz azaltzen zigutenean, zure lanetan agertzen diren mila eztabaida ekarrita ere, zure ekarpenik batere ez ikusteak. Gu-ta-gutarrismoa? Txokokeria? Izango du hortik ere, baina... Beste askotan bezala, Jakineko zuzendariaren bulegoan jarri nizkion hitzak sentipenari. Zeren poster txiki batean Sarah Ahmeden «citation is feminist memory» esaldia baitago idatzita; hain sinple, hain indartsu. Bistakoegia egin zitzaidan paralelismoa. Pentsamenduaren autopistetatik egotzitako genero-ibilbideekin bezala, hizkuntzenak aitortzeak bere baitan duela balioa, alegia. Edo, alderantziz, ez aitortzeak berriki egiten duela bazterketa. Elur gainean, txori hanka arin bakan batzuen arrastoei, eurek baka-rrik, nekez urratuko dutelako bidea.

Zuk ere ez zenituen, seguru asko, zure ideien ondorio posible guztiak aterako eta... orain ari gara horien potentzialak arakatzen; asmatuko ahal dugu behar bezala aitortzen. Bagenekien hala izango zela, baina Platoni bezala gertatuko zaigu orain zure liburuekin. Galdetu egingo diegu, baina erantzunik jaso ez. Agian ez zenuen ikusiko, baina *Zugazart*-ek oso tira ederra egin zizun hilondorenean. Gure galderen aurrean, urretxindorraren antz handia daukan txori bihurtzen zara, eta hegaldatu. Irakurri egingo dugu, orduan, eta kantu zahar-berriak entzun.